



ALKATE DEKRETUA

Nik, Izaro Elorza Arregui Oñatiko Alkatea naizenez eta Toki Korporazioetako Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridiko Erregelamenduak ematen dizkidan ahalmenetan oinarrituz ondorengo agintzea erabaki dut:

Artikulu hauetan xedatutakoa betetzeko: Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22. eta 46. artikulua; Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legea; eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren bidez onartutako Toki Erakunde Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduaren 79., 80 eta 82. artikulua.

Onartutako saioen egutegia ikusita.

Alkate-udalburua naizenez, bai eta toki-araubidea arautzen duen indarreko araudiak ematen dizkidan ahalmenak ikusita,

Erabaki dut:

Udalbatzaren ohiko bilkurarako deia egitea. Bilkura hori udal honetako Osoko Bilkuren Aretoan egin beharko da, 2021eko ekainaren 24an, 18:30etan, lehen deialdian, eta bi egun geroago eta ordu berean, bigarrenetan. **Gai-zerrendako gai hauek aztertuko dira:**

1. Ekainaren 28a dela-eta LGTBI harrotasunaren nazioarteko egunaren aldeko egindako adierazpen instituzionala.
2. Onartzea, hala badagokio, 2021-05-27ko ohiko osoko bilkuraren akta, (5.2021).
3. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Zinegotzi baten %30eko dedikazio eta bere ondainsaria onartzea, Pertsonal eta barne antolamendu Informazio Batzordean diktaminatua 2021eko ekainaren 4an.
4. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: plan orokorra idazteko oinarri izango diren irizpideak eta helburuak onartzea 2/2006 Legearen 90.4 artikulua arabera, Hirigintzako Informazio Batzordean diktaminatua 2021eko ekainaren 15ean.
5. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: II.7 H.G. Migelena sektoreko Plan Partzialaren aldaketa behin betiko onartzea, Hirigintzako Informazio Batzordean diktaminatua 2021eko ekainaren 15ean.
6. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Kalegoienako garaje baten salmenta, Hirigintzako Informazio Batzordean diktaminatua 2021eko ekainaren 15ean.
7. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Tasio Camarero Saez de Viterik egindako eskaera onartzea eta Olaburu zentruko ZM8 bulegoa alokatzea, Sozioekonomia eta Turismoko Informazio Batzordean diktaminatua 2021eko ekainaren 6an.
8. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Etxez etxeko laguntza zerbitzu Kontratua urtebetez luzatzea 2022ko irailaren 30era arte, Ongizate Zerbitzu Informazio Batzordean diktaminatua 2021eko ekainaren 15ean.
9. Hala badagokio, presako gaiak.
10. Hala badagokio, larrialdi-mozioak.
11. 2021eko ekainaren 8ko 628 zenbakia duen Alkate Dekretuaren berri ematea, non Kontratazio-arloko zenbait eskumen gobernu-batzarrari eskuordetzen zaizkio.

12. 2021eko ekainaren 8ko 631 zenbakia duen Alkate Dekretuaren berri ematea, non Udalaren zenbait kontratu txiki izapidetzeari buruzko jarraibide onartzen den.
13. Maiatzaren 22tik ekainaren.. bitartean eman diren alkate dekretuen berri ematea, 542 zenbakitik 688 zenbakira.
14. Galderak eta eskaerak.

Jakinaraz bekie berehala Udalbatzako zinegotzi guztiei, eta ohartarazi Idazkaritzan eskura dutela gai-zerrendan jaso diren azertu beharreko gaiei buruzko dokumentazioa, eta, arrazoi justifikaturen bat dela-eta bilkurara joaterik ez badute, alkate-udalburuari jakinarazi beharko diotela, behar besteko aurrerapenaz.

Honela jasota gera dadin eta bere ondorioak izan ditzan hau sinatzen dut

Onatin, 2021eko ekainaren 21an
Alkateak

Izaro Elorza Arregui

